

INIGO LOIOLA'KOAREN LORETXOAK

1991. urtean bosteun urte beteko dira Iñigo Loiola'n jaio zala. Aldizkari onetan bere bizitzako "loretxo" batzuk idaztea egoki dala, uste dot, Jesusen Lagundiko sortzaillea nor eta zelakoa izan zan jakiteko.

Orain dakardan gertakizun au Bartzelonan jazo zan, Iñigo Jerusalem'dik etorri eta bere ikasketak uri aretan egiten asi zanean.

Iñigo'k orduan 34 urte zutuan.

KOMENTUAK GARBITZEN

Ba zan Bartzelonan 1524. urtean, ez ain fama ona eukan lekaiame-mojen komentu bat.

(Jakin bearra dago Trento'ko Kontzilio aurretik ez zala komentuetan klausurarik gordetan).

Mojakaz barriketa zoroetan denbora pasatzera, ango andizkien seme gazte batzuk sarriegi joaten ei ziran.

Iñigo'ren belarrietaraiño eldu zan errian zabaldua egoan surru-murru gaiztoa, eta Loiola'koak min artu eban.

Moja arein alde Jaungoikoari otoitz egin ondoren, ba-doa Iñigo moja buru-arin areingana, eta Jaungoikoaren izenean, arren eta arren, eskatzen deutse, gazte zoro areik komenturik aldentzeko.

Lekaiame areik, Iñigoren berba sutsuak entzunda, lengo zorakeriak itxi, eta bide zuzenera etorri ziran.

Gazte arein amorrua!!!

Ilunabar batean Iñigo Bartzelonako kaleetan zear bere eginbearretara joian eta bapatean esklabo baltz

batek bidera urten eta Iñigo'ri egundoko irain baltzak esan ondoren, zigor batekin ikaragarrizko astiñaldia emon eutson.

Astin-astin eginda, bide bazterrean konorte barik itxi eban.

Geroago andik igaro ziran errotari batzuk, norbaiten aiene! oi-u-miñak entzun ebezan... Eta Iñigo odoletan aurkitu eban.

Asto gainera jaso eta Teresa, Iñigo'ren zaintzailearen etxera eroan eban.

Ain txarto ikusi eban eta elizakoak emon eutsoezan.

Bi ilebete egin ebazan oian.

Nork jo eban jakiteko egin alak egin arren, ezin izan eban Iñigo'ren agorik izenik atera.

Bere oiñazen artean Iñigo'k Jaungoikoari bere are-rioen alde eskatzen eutsan...

Zer esanik ez, Iñigo oiñez ibilteko gauza izan zanean, bere lenengo urteera moja arein komentura izan zala, bizitza santuan irauteko lekaiameei kemen emotera.

Jaungoikoak Iñigo'ren otoitzak entzun ebazan...

Erru andiena eukanak azkenean, bere gaiztakeria ezagutu eban, eta Iñigo'ren aurrean belaunikaturik, par-kamena eskatu, eta andik aurrera Loiola'koari bere limos-naz lagundu eutsan.

GOIKOETXEA'tar IÑAKI. S. J.

IZENA DA ARGITZEA

"Izena daben guztiak izatea bere badabe" Izena eta Izana. Aundiak eta txikiak iñoiz argiro, izena ezarri izan ba-yake... agertu da aren sena.

Sorraldiko benetako uea ura izan zan bai, izantzadunei aal zuanak ezarri eutsoenean

izena, esanik onela: egurra, zura, arria, astoa, mandoa, euria, zaldia, izotza, edurra... bataiatuak gelditu zirean, argituz gizonaren jakintzapena.

iZenbat gauza oraindik ez dira jaio bakarrik iñork ezin izendatu edota izendatu ez ditualako! Askok ta asko daurkikeguz ordea gaiki izantzarik izan-ezarren

norbaitek oldozbidez asmatzean egokiro izentatu zitualako.

Beste batzu or egunen batean iñolako gomutapenik ez-arren illunpetik argira ekarritako liburu zarren baten orrialdetan berbiztuak izango dira beren deiturazko sointze, agerpenean... Aldigune labur ala luzerako?

MUNIATEGI'tar SABIN